



A3: Musikaren historia

PROBA EGITEKO ARGIBIDEAK

- Proba osoa egiteko denbora: 40 minutu
- Probaren edukia eta prozedura:

1. zatia: 20 galdera EGIA/GEZURRA. Balioa: 10etik 2.

- Erantzuteko denbora: 5 minutu.

2. zatia: 4 entzunaldi, eta entzunaldi bakoitzeko 2 galdera; galdera bat libreki erantzuteko izango da, eta bestea test modukoa. Balioa: 10etik 8.

- Entzunaldi bakoitzeko 2 galdereri erantzuteko denbora: 2 minutu. Proba osoa egiteko denbora: 35 minutu.
- 4 entzunaldiak berriro entzungo ditugu 2. zatiaren amaieran.

- ARGIBIDEAK:

- Markatu erantzunak Erantzun Orrian.
- Markatu gurutze batez erantzun zuzena. Galdera batean laukitxo bat baino gehiago markatzen badituzu, erantzuna baliogabetzat joko da. Erantzun bat zuzendu nahi izanez gero, oker erantzundako laukitxoa biribil batez ingura ezazu eta gurutze bat jarri erantzun zuzenari.
- Oker erantzundako galdera bakoitzeko 0'25 puntu kenduko da, test moduko galderetan soilik.





1. ZATIA [5', 02:10] (gezurrak beltzan)

1. **Musika-aipamena XX. mendeko konposizioetan hasi zen erabiltzen.**
2. **Kontralto baten erregistroa soprano batena baino altuagoa da.**
3. *Toccata* bat instrumentu-konposizio bat da, ohiko moduan teklatuarentzat, forma librea duena eta hainbat idazkera nahasten dituena.
4. Balsa XX. mendearen lehenengo erdian oraindik ere modan zegoen eta askotariko autoreek erabili izan dute, hala nola, Ravel-ek edo Schönberg-ek.
5. Béla Bartók-ek Europako ekialdeko milaka herri-melodia idatzi eta grabatu zituen zilindro fonografikoetan.
6. Webern-en musika serialak eragina izan zuen XX. mendeko konposizio-pentsamenduan eta, eragin horren ondorioz, Boulez-ek sistema serial orokortua garatu zuen, altuera ez ezik, soinuaren beste hainbat parametro ere aintzat hartuta.
7. **Olivier Messiaen Pierre Boulez-en ikasle izan zen.**
8. Oro har, aldi batera jotzen diren bi nota bi soinu horiez osatutako konplexu heterogeneotzat jasotzen ditugu, zehaztasun-maila handiagoarekin edo txikiagoarekin.
9. **Melodia baten transposizioa egiten denean nota guztien altuera absolutua aldatzen da, baita noten arteko bitarteak ere.**
10. *Concerto for prepared piano* obra John Cage-ena da; obra horretan, interpreteak ez du pianoaren tekla bakar bat ere jotzen.
11. **Musika herrialde baten politikatik kanpo geratzen den adierazgarri garbia dugu Shostakovich.**
12. XX. mendearen lehenengo erdian grabatutako zenbait soinu-dokumentutan musika konpositoreek berek nola interpretatzen zuten entzun daiteke. Horren adibide dira Stravinsky edo Prokofiev.
13. **Perkusioko musika-tresna guztiak idiofonoak dira.**
14. **Hasiera tetiko bat hasiera azefalooa izaten da beti.**
15. **Zaratak ez du musika-erabilgarritasunik.**
16. Saxofoia instrumentu konikoa da, zurezko haize-instrumentuen familiakoa.
17. Soinu harmonikoen portaera-aldeak instrumentuen bereizgarri izaten dira.
18. Notazio zehaztugabeen oso ohikoak ez diren grafiak erabiltzen dira musika-edukiak adierazteko.
19. **Musika elektroakustikoa musika aformala da.**
20. **Polirritmia ez da erabiltzen mendebaldeko konposizioetan.**





2. ZATIA [35', 08:10]

♩ 1. entzunaldia.

1. Deskribatu instrumentu-plantilla.
2. Zein genero eta garaitakoa da pasartea?
A) *Lied* erromantikoa da, ahotsetarako eta instrumentu-akonpainamenduarekin.
B) Motete barrokoa da, *a cappella*.
C) XVII. mendeko madrigal italiarra da.

♩ 2. entzunaldia.

1. Zer instrumentu-talderentzat idatzita dago pieza hau?
2. Zer mugimendu motari dagokio?
A) Lehen mugimendua da: Martxa eta Dantza.
B) Hirugarren mugimendua da: Minueta, Trioa eta Minuetoa *Da Capo*.
C) Laugarren mugimendua da: Tema, bariazioekin.

♩ 3. entzunaldia.

1. Zein genero eta garaitakoa da pasartea?
2. Ahots-estilo horri nola esaten zaio?
A) Melodia infinitua.
B) Bel canto.
C) Verismoa.

♩ 4. entzunaldia.

1. Zein genero eta garaitakoa da pasartea?
2. Pasarte hori honako estetika honekin lotu genezake:
A) Neoklasikoa.
B) Espresionista.
C) Minimalista.

